

Garraioa eta Logistika

Hiztegia



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Garraioa eta Logistika

HIZTEGIA



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2017

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren
Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia: I.a, 2017ko xxxx

Ale-kopurua: 1.500 ale

© argitaraldi honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Internet: <http://www.euskara.euskadi.eus/euskalterm>

Azala: Concetta Probanza

Inprimaketa: XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX

ISBN: XXXXXXXXXXXXXXX

Lege gordailua: XXXXXXXXX

HITZAURREA

Beste edozein hizkuntza bezalaxe, euskara ere berritzen eta modernizatzen doa egunetik egunera, bizirik dagoen seinale. Bide horretan ezinbestekoa da euskararen aberastasun lexikoa elikatzea, zaintzea eta sustatzea, bai hizkuntza bera normalizatzeko, bai erabiltzaileen premietara egokitzeko. Hain zuzen ere, helburu horiek bete nahian ikusi du argia eskuartean duzun hiztegi honek, orrialde hauetan jorratzen den eremuko erabiltzaile eta hiztunek lanabes erabilgarria izan dezaten beren egunerokoa.

Hiztegi honetan aurkituko duzun terminologia Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzordeak gomendatutakoa da. Batzordeari dagokio, besteak beste, terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea, lan-proposamenak egitea, terminologia-lanerako irizpideak ezartzea, ponderazio-markak finkatuta termino lehiakideen arteko lehentasunak jartzea eta terminoen erabilera onestea eta gomendatzea.

Terminologia Batzordeak onartutako gainerako hiztegiak bezala, hiztegi hau ere EUKALTERM Euskal Terminologia Banku Publikoan www.euskara.euskadi.eus/euskalterm dago integratuta.

Banku hau etengabe elikatzen eta zabaltzen ari gara Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzatik IVAPekin lankidetzan, Eusko

Jaurlaritzak bideratu eta sustatu nahi duen terminologiaren produkzioaren, kudeaketaren eta hedapenaren muina izan dadin. EUSKALTERM metodologia eta irizpide jakin batzuen arabera eguneratu eta elikatzen da, betiere Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planei jarraituz.

Hiztegi hau erabiltzaileen oinarritzko premiak asetzeko baliagarri izatea nahi genuke, hemen jorratzen den terminologiaren erabilera normalizatzeko eta gure hizkuntzaren eguneratzearen bidean urrats garrantzitsua izan dadin. Hiztegi hau eta honekin batera argitaratzen ditugun guztiak eguneroko jardunean erabiltzera animatzen zaituztegu, euskaldunok gero eta hizkuntza aberatsagoa izan dezagun.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainaren 29a

MIREN DOBARAN URRUTIA
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

HIZTEGIARI BURUZKO ARGIBIDEAK

Hiztegi hau UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroak egin du EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa (www.euskara.euskadi.eus/euskalterm) eguneratzeko eta elikatzeko entitate horrek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (HPS) izenpetutako kontratuaren barruan. Kontratua HPSk eta IVAPEk finantzatu dute, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa da Terminologia Batzordeak¹ finkatutako terminologia-lana zabaltzeko ardatza. Aldi berean esan behar da Terminologia Batzordeak onartutako jarduketa-planen barruan ezarritako lehenetasunen arabera eguneratzen dela Terminologia Banku Publikoa. Euskararen Aholku Batzordeko Terminologia-batzorde atal bereziak euskarazko terminologia-lanerako finkatu zuen metodologiari jarraituta, hiztegi hau, lehenengoz, hizkuntzalariez eta eremuko adituez osatutako batzorde teknikoak aztertu eta landu zuen, Terminologia Batzordeari behin betiko proposamena luzatzeko. Normalizazio-prozesuaren azken urratsa Terminologia Batzordeak onartzea izan da. Beraz, hemen duzue eremu honetako terminologiaren erabiltzaileei **Terminologia Batzordeak gomendatzen dien terminologia.**

1 176/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskararen Aholku Batzordeari buruzkoa.

Hiztegia erabilitako ponderazio-markak:

(4) Termino normalizatua/gomendatua

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

Hiztegia erabilitako laburtzapenak:

eu euskara

es español

fr français

en English

Sin. sinonimoa

Ik. ikus

NORMALIZAZIOA

BATZORDE TEKNIKOA

Mario Goffard Negro (BECeko Marketing eta Komunikazio zuzendaria)

Jose Manuel Anabitarte Fernandez (Garraio Plangintzaren Zuzendaritza)

Joxean Zapirain (UZEI)

Koordinatzailea: **Jone Agirregoikoa**
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

TERMINOLOGIA BATZORDEA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, batzorde-ataleko lehendakaria

Eneko Oregi Goñi, IVApeko zuzendariordea, batzorde-ataleko lehendakariordea

Jorge Giménez Bech, EABko eta batzorde-ataleko idazkaria

Araceli Díaz de Lezana Fernández de Gamarra, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkaria

Maite Imaz Leunda, IVApeko ordezkaria

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren ordezkaria

Iker Etxebeste Zubizarreta, Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxeko (UZEI) ordezkaria

Xabier Alberdi Larizgoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuko ordezkaria

Ibon Olaziregi Salaberria, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuaren ordezkaria

Mertxe Olaizola Maiz, aditua

Joseba Erkizia Itoitz, aditua

Asier Larrinaga Larrazabal, aditua

Miel Loinaz Beristain, aditua

Alberto Atxabal Rada, aditua

Alfontso Mujika Etxeberria, aditua

UZEI-REN LANKIDE IZAN DIREN ADITUAK

Juan Carlos Elizagarate. Plaiaundi Institutua
Alberto Enparanza. EHU - Zuzenbide merkantila
Mari Carmen Izagirre. GUITRANS

EREMU-ZUHAITZA



- 1 **Kontzeptu orokorrak**
- 2 **Trenbideko garraioa**
- 3 **Errepideko garraioa**
- 4 **Aireko garraioa**
- 5 **Itsasoko garraioa**
- 6 **Garraio intermodala**
- 7 **Logistika**

AURKIBIDEA



Bokabularioa sailka

1. KONTZEPTU OROKORRAK	14
2. TRENBIDEKO GARRAIOA	30
3. ERREPIDEKO GARRAIOA	32
4. AIREKO GARRAIOA	40
5. ITSASOKO GARRAIOA	41
6. GARRAIO INTERMODALA	47
7. LOGISTIKA	52
Euskarazko aurkibidea	55
Gaztelaniazko aurkibidea	63
Frantsesezko aurkibidea	71
Ingelesezko aurkibidea	79
Erreferentzia bibliografikoak	87

BOKABULARIOA SAILKA

I. KONTZEPTU OROKORRAK

1

aduana (4)

Bulego publikoa, ia beti herrialdeetako mugetan eta kostaldeetan egoten dena; nazioarteko zirkulazioa eta kanpora ateratzen diren edo barrura sartzen diren generoak eta salgaiak erregistratzeko eta salgai horientatik zor diren zergak kobratzeko izaten da.

es aduana
fr douane
en customhouse

2

aduana-**agente** (4)

Pertsona fisikoa edo juridikoa, salgaiak esportatzeko eta inportatzeko bulegoetan izapidetu behar den dokumentazio guztia betetzeko eta aduana-zergak, lizentziak eta ziurtagiriak ordaintzeko ahalmena duena. Aduanetako Zuzendaritzak ematen dio ahalmen hori.

es agente de aduanas
fr commissionnaire en douane
en customs agent

3

aduana-**izapide** (4)

es despacho de aduana
fr dédouanement
en customs clearance

4

aduana-**zergen eskubide** (4)

es derecho de aduana
fr droit de douane
en customs duty

5

aduanako **gordetegi** (4)

Aduana-eginbideak bete aurretik inportazioko salgaiak hustu eta sailkatzeko lokala, horretarako behar den aduana-baimena duena. Salgaiak denbora-mugarik gabe biltegitzeko aukera ematen du, baita salgaiak biltzeko, kontserbatzeko eta zaintzeko behar diren eragiketak egiteko ere.

es depósito aduanero
fr dépôt de douane
en customs storage warehouse

6

animalia bizien garraio (4)

Animaliak leku batetik bestera bizirik eramateko garraioa. Baldintza egokietan egin behar da, beharrezko ekipamendu eta zaintzako instalazioaz hornituz, atsendaldi eta animalien otordueta denborak hartuz, eta abar.

es transporte de animales vivos
fr transport des animaux vivants
en transport of live animals; carriage of live animals

ATP

Ik. Salgai Galkorren Nazioarteko Garraioari eta garraio horretan erabili beharreko Ibilgailu Bereziei buruzko Akordioa

7

atzerapen (4)

Salgaia bere helmugan garraio-gutunean ezarritako epea baino beranduago entregatzea.

es demora en la entrega de la mercancía; retraso
fr retard
en delay

8

balio aitortu (4)

Gutun, pakete edo fardel bat bidaltzerakoan bidaltzaileak ematen duen balioa; galera, kaltea edo lapurreta gertatuz gero zer diru-kopuru itzuliko zaion adierazten du.

es valor declarado

fr valeur déclarée

en declared value

9

balio aseguru (4)

Aseguru-hartzaileak aseguruan estaltzen diren objektuei ematen dien eta aseguratazaileak onartzen duen balioa. Kontratuaren baldintza ekonomikoak zehazteko balio du.

es valor asegurado

fr valeur assurée

en insured value

10

balio-aitorpen (4)

Garraiolaria salgaien balioaz erantzutera behartzen duen agiria. Bidaltzaileak egiten du aitorpenean zehaztutako balioaren kalkulua, eta garraiolariak kontratua betetzen ez duenean edo salgaia galdu edo hondatzen duenean aplikatzen da agiriaren indarra.

es declaración de valor

fr déclaration de valeur

en declaration of value

11

barne-garraio (4)

Sin. estatu barruko garraio (3)
Abiapuntua, helmuga eta tarteko bidea estatu bereko lurraldean dituen garraioa.

es transporte interior

fr transport intérieur

en inland transport; domestic transport; internal transport

12

berogailu-edukiontzi (4)

Sin. berogailu-kontainer (4)
Edukiontzi isoterma, beroa sortzeko gailua duena; gailu horren bidez, edukiontziaren barruko tenperatura igo, eta balio ia konstante batzuen artean mantentzen da, gutxienez +12 °C-an.

es contenedor calorífico

fr conteneur calorifique

en heated container

berogailu-kontainer

Ik. berogailu-edukiontzi

13

bidaiari (4)

Ibilgailu batean doan pertsona, ibilgailuaren gobernuaz eta zerbitzuaz arduratzen ez dena.

es pasajero; viajero

fr passager

en passenger

14

bidaiarien garraio (4)

Pertsonak eta haien bagajeak leku batetik bestera eramatea, modu pertsonalizatuan edo kolektiboan, hartarako egokitutako ibilgailuetan.

es transporte de viajeros

fr transport de voyageurs

en carriage of passengers; passenger transport

15

bidalketa (4)

Bidaltzaileak garraiolariaren bitartez salgaiak jasotzaileari helaraztea. Fardel bakar bat edo asko izan dezake bidalketa batek, eta kontratu batek ere bidalketa bakarra edo gehiago izan ditzake.

es envío; remesa; expedición

fr envoi; expédition

en consignment

16

bidaltzaile (4)

Sin. igorle (4)

Pertsonak edo salgaiak norabait garraiatzeko eskatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa. Garraiolariak, garraio-kontratu baten indarrez, haren aurrean hartzen du garraioa egiteko betebeharra.

es cargador; expedidor; remitente

fr chargeur; expéditeur

en shipper; sender

17

bilgarri (4)

es envase

fr contenant

en container

18

biltegin-banatzailer (4)

Ekoi-leen produktuak kontratu bidez eskuratu eta, bezeroen artean banatzeko, biltegi batean gordetzen dituen enpresa bitartekaria.

es almacenista-distribuidor

fr distributeur-stockiste

en stockist-distributor

19

desestibatze (4)

Nahita edo nahi gabe karga bere lekutik mugitzea.

es desestiba

fr désarrimage

en destowage

20

deskargatze (4)

Salgaiak ibilgailu batetik ateratzea.

es descarga

fr déchargement; débarquement

en unloading

21

deskargatzeko epe (4)

Salgaiak desestibatu eta ibilgailutik ateratzeko ematen den denbora.

es plazo de descarga

fr délai de déchargement

en unloading period

22

edukiontzi (4)

Sin. kontainer (4)

Gauzak garraiatzeko enbalaje-elementu metaliko handia eta berrerabilgarria, nazioartean normalizatutako neurriak dituen. Garraio-modu batean baino gehiagotan erabiltzeko egokia izan behar du, eta, batez ere, garraio-modu batetik bestera aldatzean bitarteko manipulaziorik gabe erraz erabiltzeko modukoa.

es contenedor; container

fr conteneur; container

en container

23

enbalaje (4)

Salgaiak babesteko erabiltzen den kanpoko estalki egokia. Garraiatu beharrekoaren izaera eta garraio-modua kontuan hartuz, garraio bitarteko manipulazioetatik, kolpeetatik eta arriskuetatik babesteko egokia izan behar du.

es embalaje

fr emballage

en packing; package

24

eramateko helbide (4)

Garraiatutako salgaiaren helburuko helbidea. Kontrako itunik ez badago, jasotzailearen egoitza izaten da, garraio-gutunean azaltzen denaren arabera.

es lugar de entrega

fr lieu de livraison

en place of delivery

25

eskatu ahalako garraio (4)

Aurrez ezarritako ibilbide, egutegi eta ordutegirik gabeko garraioa.

- es** transporte discrecional
- fr** transport à la demande
- en** demand-responsive service

26

esportatzaile (4)

Produktuak edo zerbitzuak atzerrian merkaturatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

- es** exportador
- fr** exportateur
- en** exporter

27

esportazio (4)

- es** exportación
- fr** exportation
- en** export

estatu barruko garraio

Ik. barne-garraio

28

estibatzaile (4)

Sin. zamaketari (4)

Bulego, gordetegi edo biltegi batean salgaiak kargatzen, deskargatzen, biltegitratzen edo banatzen dituen pertsona.

- es** estibador
- fr** arrimeur; manutentionnaire
- en** longshoreman; stevedore

29

estibatze (4)

Salgaia garraioko ibilgailuaren barruan jartzea eta egokitzea, eta hori metatzeko eta lotzeko beharrezkoak diren eragiketak egitea.

- es** estiba
- fr** arrimage
- en** stowage

30

etiketatze (4)

Garraiatutako fardelean etiketa ezartzea; bidaltzaileak egin ohi du, jasotzaileak fardelak erraz identifika ditzan entregatzeko lekura iristen direnean.

- es** etiquetado
- fr** étiquetage
- en** tagging

31

fardel (4)

Garraiolariari entregatzen zaion ulean bidalketako beste unitate guztietatik garbi bereizitako unitate-karga bat osatzen duen objektua edo objektu-multzoa; neurriak eta bolumena edozein izan daitezke, eta enbalajea ere barnean hartzen da. Pakete bakar batek edo pakete-sail batek osa dezake fardela.

- es** bulto
- fr** colis
- en** parcel; package

32

flota (4)

Enpresa, erakunde, elkarte edo herrialde batek dituen kategoria bereko ibilgailuen multzoa.

OHARRA: Flota itsasontziena edo ibaiontziena bada, *ontzidi* ere erabiltzen da.

- es** flota
- fr** flotte
- en** fleet

33

gaintasa (4)

Baldintza jakin batzuetan garraio-kostuari gainerik ezartzen zaion gehigarria.

- es** sobretasa; sobreporte
- fr** surfret; surtaxe
- en** surcharge

34

galtze (4)

Garraiatu beharreko salgai guztiak edo salgaien parte bat desagertzea. Arrazoia izan daiteke suntsiketa, sutea, lapurreta, non utzi zen ez gogoratzea, eta abar.

es pérdida; falta

fr perte

en miscarriage

35

garraio (4)

1. Pertsonak edo salgaiak ibilgailuen bidez leku batetik bestera eramatea. 2. Horretarako erabiltzen diren bide edo moduen multzoa.

es transporte

fr transport

en transport; transportation

36

garraio berezi (4)

Arriskua, larrialdia, beste garraio-mota batekiko bateraezintasuna, gizartearen duen eragina edo antzeko arrazoiren bat dela eta, administrazio-arau bereziak bete behar dituen garraioa. Baimen berezia eskatzen da batzuetan horrelako garraioa egiteko. Garraio bereziak dira, nolana ere, salgai arriskutsuen garraioa, tenperatura kontrolatuko salgai galkorra, gaixoena, zaurituena eta hildakoena.

es transporte especial

fr transport spécialisé

en specialised transport

37

garraio erregular (4)

Aurrez ezarritako ibilbide, egutegi edo ordutegien arabera garraioa.

es transporte regular

fr transport régulier

en scheduled carrier

38

garraio kolektibo (4)

Pertsona-talde bat aldi berean garraiatzeko diseinatuta dauden garraio bideen multzoa: tarifak, ordutegiak eta ibilbideak finkoak izan daitezke, edo unean uneko beharrei egokituak.

es transporte colectivo; transporte colectivo de viajeros

fr transport collectif

en collective transportation

39

garraio misto (4)

Pertsonak eta salgaiak eramateko garraioa; horretarako bereziki prestatutako ibilgailuetan egiten da, batzuentzako eta besteentzako instalazioak ondo bananduz.

es transporte mixto

fr transport mixte de fret et de passagers

en combination passenger/cargo carrier

40

garraio multimodaleko operadore (4)

Garraio-modu bat baino gehiago erabiltzen dituen garraio-operadorea. Atetik aterako zerbitzua eskaintzen du, eta, garraio dokumentu bakar baten bidez, garraio-modu bat baino gehiago erabiltzen ditu, horretarako behar den egitura egokiaz eta gaitasun ekonomikoaz baliatuz.

es operador de transporte multimodal

fr entrepreneur de transport multimodal

en multimodal transport operator

41

garraio pribatu (4)

Pertsona batek bere kontura egiten duen garraioa: berari sortutako beharrei aurre egiteko egiten du, edo bere enpresa edo establezimenduetako jarduera nagusi baten osagarri gisa eta jarduera horri zuzenean lotuta.

- es** transporte privado
- fr** transport privé
- en** private transport

42

garraio publiko (4)

Besteren kontura, ordainsari ekonomiko baten truke, egiten den garraioa.

- es** transporte público
- fr** transport public
- en** public transport

43

garraio-agentzia (4)

Salgaien garraio publikoan kontratazioaz arduratzen den enpresa; erabiltzaileen eta garraiolarien arteko bitartekari-lanak egiten ditu garraio-modu guztietan. Kontratu bat egin behar izaten du, bai garraiolariarekin eta bai erabiltzaile edo bidaltzailearekin. Horrek esan nahi du, beraz, erabiltzaile edo bidaltzaile izango dela garraiolariaren aurrean, eta garraiolari erabiltzaile edo bidaltzailearen aurrean.

- es** agencia de transporte
- fr** compagnie de transport
- en** transport agency

44

garraio-agiri (4)

Salgaia hartzen duenak sinatzen duen ziurtagiria. Salgaia zer den, noiz entregatu den eta bidaltzailearen eta jasotzailearen izenak izaten ditu.

- es** albarán
- fr** bon de livraison
- en** delivery slip

45

garraio-aseguru (4)

Garraiatzen diren salgaiak edo garraioa egiten duen ibilgailuak garraioan izan dezaketen kaltea estaltzen duen aseguru.

- es** seguro de transportes
- fr** assurance transport
- en** transportation insurance

46

garraio-baldintzak (4)

Pertsonak eta salgaiak garraiatzeko eskatzen diren legezko edo kontratuzko baldintzak, garraiolarien eta erabiltzaileen arteko harremanen araubide direnak.

- es** condiciones de transporte
- fr** conditions du transport
- en** conditions of carriage; transportation conditions

47

garraio-bitartekari (4)

Sin. garraio-kudeatzaile (4)

Salgaiak garraiatzeko behar diren izapide administratiboak eta logistikoak egiteaz arduratzen den pertsona fisikoa edo juridikoa; bereziki, portuetan eta aireportuetan aritzen da.

- es** transitario
- fr** transitaire; commissionnaire de transport
- en** forwarding agent; freight forwarder

48

garraio-gastuak (4)

Garraioa egiteak sortzen dituen gastuak. Garraio-gastutzat hartzen dira, batetik, garraioak berak sortzen dituen gastuak, eta, bestetik, garraioaren aurretik, bitartean edo ondoren egindako eragiketek edo bidaltzaileari edo jasotzaileari egozteko modukoak diren kalteen ordainek sortzen dituztenak.

es gastos de transporte
fr frais de transport
en transportation expenses

49

garraio-gutun (4)

Garraio-kontratu bat egin dela ziurtatzen duen dokumentua, bidaltzaileak eta garraiolariak elkarri eska diezaioketena. Bidaltzailearen, garraiolariaren eta jasotzailearen identifikazio-datuak jasotzen dira dokumentu horretan, bai eta bidalketa non eta noiz entregatu behar den eta salgaiaren pisua, izaera eta identifikatzeko datuak ere.

es carta de porte
fr lettre de transport
en bill of lading

50

garraio-kontratu (4)

Garraiolaria prezio baten truke pertsonak edo gauzak leku batetik bestera eramatera behartzen duen kontratua.

es contrato de transporte
fr contrat de transport
en contract of carriage;
 transportation contract

51

garraio-kostu (4)

Salgai bat ibilgailu batean leku batetik bestera eramateagatik ordaintzen den kopurua. Kontratuan zehazten da noiz, nola eta nork ordaindu behar duen kostua.

es porte; precio del transporte
fr prix de transport
en transportation rate

52

garraio-kostu ordaindu (4)

Garraioaren kostua bidaltzaileak bere kontura hartuko duela adierazten duen ituna.

es porte pagado
fr port payé
en carriage paid

53

garraio-kostu ordaindugabe (4)

Garraioaren kostua jasotzaileak bere kontura hartuko duela adierazten duen ituna. Jasotzaileari bidalketa egiten dion unean eska dezake bidaltzaileak garraio-prezioaren ordainketa.

es porte debido
fr port dû
en carriage forward

garraio-kudeatzaile

Ik. garraio-bitartekari

54

garraio-modu (4)

Ondasunak edo pertsonak garraiatzeko tipologia berezia. Hiru garraio-modu bereizten dira: airekoa, itsasokoa eta lurrekoa.

es modo de transporte
fr mode transport
en mode of transport

55

garraio-operadore (4)

Bitarteko gisa jokatzeko duen garraio-entresa. Salgai-garraioen kontratazioa egiteko baldintzen arabera, bidaltzaileen eta garraiolarien arteko harreman-lana egiten du.

- es** operador de transporte
- fr** entrepreneur de transport;
- opérateur de transport**
- en** transport operator

56

garraio-txartel (4)

Salgaiak garraiatzeko ahalmena ematen duen administrazio-agiria; garraio publikoa edo pribatu osagarria egiteko balio du, dokumentuan identifikatuta azaltzen den ibilgailu jakin batekin erabiltzeko betiere.

- es** tarjeta de transporte;
- autorización de transporte**
- fr** carte de transport
- en** annual pass

57

garraiobide (4)

Garraiatzeko bidea edo modua.

- es** medio de transporte
- fr** moyen de transport
- en** means of transport

58

garraiolari (4)

Garraio-kontratu baten indarrez salgaiak edo pertsonak leku batetik bestera eramateko eginbeharra bere gain hartzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa.

- es** transportista; porteador
- fr** transporteur
- en** carrier; haulier

59

garraiolariaren erantzukizun (4)

Garraiolariak salgaiaren gain duen ardura, salgaia bidaltzailearengandik jasotzen duenetik jasotzaileari entregatzen dion arte irauten duena. Garraiolariari dagokio salgaiek garraioan nozitzen duten kalteari edo galerari erantzutea, non eta frogatzen ez duen kalte hori halabeharrez, ezinbestean edo garraiatutako gauzen berezko izaeragatik edo akatsengatik gertatu dela.

- es** responsabilidad del porteador
- fr** responsabilité du transporteur
- en** carriers' liability

60

gordetegi franko (4)

Lurralde bateko aduana-eremuan kokatzen den lokal itxia, aduanatik kanpo dagoela kontsideratzen dena. Hau da, bertan gordetako salgaiei aduana-zergen eskubideak eta inportazioko zergak ez aplikatzeko eskubidea ematen du.

- es** depósito franco
- fr** entrepôt de douane
- en** bonded warehouse

hegazkineratzeko txartel

Ik. ibilgailuratzeko txartel

61

hil-garraio (4)

Hildakoak eramateko garraio berezia, garraio pribatu osagarrien sailean sartzen dena. Legez baimendutako enpresek bakarrik egin dezakete garraio hori, osasun eta garraioko ministerioek ezarritako baldintza teknikoak eta sanitarioak betetzen dituzten ibilgailu berezietan soilik.

- es** transporte funerario
- fr** transport funéraire
- en** funeral transport

62

hozkailu-edukiontzi (4)

Sin. hozkailu-kontainer (4)

Edukiontzi isoterma, hotza sortzeko gailu banakoa edo partekatua duena; gailu hori, besteak beste, konpresio-ekipamendu mekanikoa edo absortzio-makina izan daiteke, eta, haren bidez, edukiontziaren barruko tenperatura jaitsi, eta balio jakin batzuen artean mantentzen da.

es contenedor frigorífico
fr conteneur frigorifique
en mechanically refrigerated container

hozkailu-kontainer

Ik. hozkailu-edukiontzi

63

hurrenez hurreneko garraio (4)

Kontratua bakarra izanda ere garraiolari batek baino gehiagok hurrenez hurren eta garraio-modu bera erabiliz egiten duten garraioa.

es transporte sucesivo
fr transport par transporteurs successifs
en through carriage

64

ibilgailu (4)

Lurrean, uretan edo airean higitzen den eta pertsonak edo gauzak garraiatzeko balio duen tresna.

es vehículo
fr véhicule
en vehicle

65

ibilgailuratzeko txartel (4)

Sin. ontziratzeko txartel (4);

treneratzeko txartel (4);

hegazkineratzeko txartel (4)

Pertsona batek itsasontzi, tren, hegazkin edo bestelako ibilgailu batean sartzeko behar duen txartela.

OHARRA: Testuingurua orokorra edo zehaztugabea denean, *ibilgailuratzeko txartel* erabil daiteke; hala ere, ibilgailua zer motakoa den zehaztua dagoenean, haren aipamena egiten duen terminoa erabil daiteke: *ontziratzeko txartel*, *treneratzeko txartel*, *hegazkineratzeko txartel* eta abar.

es tarjeta de embarque
fr carte d'embarquement
en embarkation card

igorle

Ik. bidaltzaile

66

incoterm (4)

Sin. salmenta-arau (4)

Nazioarteko Merkataritza Ganberak argitaratutako arauetako bakoitza; merkataritza-kontratueta alderdiek dituzten betebeharrak zehazten dituzte arau horiek.

es incoterm; condición internacional de venta
fr incoterm; condition internationale de vente
en incoterm; international commercial term

67

importatzaile (4)

Atzerrian erositako produktuak edo zerbitzuak bere herrialdean merkaturatzen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa.

es importador
fr importateur
en importer

68

inportazio (4)

es importación

fr importation

en import

69

itzulerako karga (4)

Sin. itzulerako zama (4)

Garraio-karga bat urrutiko leku batera eramán ondoren, handik itzulian ekartzen den karga. Itzulerako bidaia hutsik ez egiteko eta, horrela, garraioaren kostua merkatzeke erabiltzen da garraio-estrategia hau.

es carga de retorno

fr chargement de retour

en return cargo

itzulerako zama

Ik. itzulerako karga

70

jasotzaile (4)

Sin. kontsignatario (4)

Garraio-kontratuan garraiolariak eramandakoen hartzailetzat azaltzen den pertsona fisikoa edo juridikoa.

es destinatario; consignatario

fr destinataire; consignataire

en consignee

71

karga (4)

Sin. zama (4)

Garraioko ibilgailu batean kargatzen diren salgaien multzoa.

es carga; cargamento

fr chargement; charge; fret

en load; cargo; freight

72

karga lotze (4)

Sin. zama lotze (4)

Estibatzeke eragiketa bat: salgaia ibilgailuaren kutxara, garraioa egin behar duen plataformara edo ibilgailuko elementu finkoetara (habe, kartola, kako, eta abarretara) lotzea, ibilgailuak mugimendu zakarrak eginez gero karga lekuz alda edo eror ez dadin.

es trincaje; trincado

fr accorage; amarrage

en lashing

73

karga oso (4)

Sin. zama oso (4)

Tarifa berezia izaten duen garraio-erregimena; karga hartzen denetik helmugan entregatzen den arte bestelako lan osagarriarik (hau da, manipulaziorik, biltegiatzerik, taldekatzerik, sailkatzerik, enbalatzerik edo banatzerik) behar ez delako da berezia.

es carga completa

fr chargement complet; charge complète

en truckload

74

karga osoko garraio (4)

Sin. zama osoko garraio (4)

Karga hartzen denetik helmugan entregatzen den arte garraiolariari beste eragiketa osagarriarik eginarazten ez dion garraioa.

es transporte de mercancías de carga completa

fr transport en charge complète

en full load transport

75

karga zatitu (4)

Sin. zama zatitu (4)

Lan osagarri batzuk (adibidez, salgaiak manipulatzeko, biltegiatzeko, taldekatzea, sailkatzea, enbalatzea edo banatzea) behar izaten dituen garraio-erregimena.

es carga fraccionada

fr chargement fractionné

en break-bulk

76

karga zatituko garraio (4)

Sin. zama zatituko garraio (4)

Salgaiak zatika banatuta eramateko garraio-modua. Garraiolariari beste eragiketa batzuk egitea eskatzen dio horrek; adibidez, salgaiak manipulatzeko, biltegiatzeko, taldekatzea, sailkatzea eta enbalatzea eta, azkenean, banatzea.

es transporte de mercancías de carga fraccionada

fr transport fractionné

en segmented transport

77

karga-unitate (4)

Sin. zama-unitate (4)

Neurri txikiko produktu asko elkartuz osatzen den multzoa. Hobeto garraiatzeko eta manipulatzeko osatzen da, eta paleta izaten da gehien erabiltzen den unitatea.

es unidad de carga

fr unité de charge

en unit load

78

kargatze (4)

Sin. zamatze (4)

Salgaiak garraioa egin behar duen ibilgailuaren barruan jartzea.

es carga

fr chargement; embarquement

en loading

79

kargatzeko epe (4)

Sin. zamatzeko epe (4)

Salgaiak ibilgailuan kargatu eta estibatzen ematen den denbora.

es plazo de carga

fr délai de chargement

en loading period

kontainer

Ik. edukiontzi

80

kontainerizazio (4)

Garraiatu beharreko karga neurri estandarizatuko edukiontzietan kudeatzeko sistema. Garraiorako erabiliko diren ibilgailuetan karga banatzeko eta antolatzeko era optimizatzen dute edukiontzi horiek.

es contenerización;

contenedorización

fr conteneurisation;

containérisation

en containerization; containerisation

kontsignatario

Ik. jasotzaile

81

kontura uzte (4)

Garraiolariaren erruz ezusteko bat gertatu denean, bidalketa bat jaso behar duenak salgaia hartzeari uko egin eta salgaiaren balioa jasotzeko duen eskubidea.

es deje de cuenta; deje por cuenta

fr laissé pour compte

en abandonment

lehorreko garraio

Ik. lurreko garraio

82

lote (4)

Bidaltzaile berak aldi berean bidaltzen dituen fardelen multzoa.

es lote

fr lot

en lot

83

lurreko garraio (4)

Sin. lehorreko garraio (4)

Errepideko edo trenbideko garraioa.

es transporte terrestre

fr transport terrestre; transport par terre

en land transport; land transportation

84

manipulazio (4)

Salgaiak jasotzeko, lekuz aldatzeko eta helmugako lekuan uzteko egin behar diren eragiketen multzoa: biltegian hartzea, metatzea, antolatzea eta, azkenik, berriro atera eta ibilgailu batean kargatzea.

es manipulación

fr manipulation

en handling

85

matxura (4)

Salgaia hondatzea edo kaltetzea eta, ondorioz, balioa galtzea eta garraiolaria hartu zuen egoera berean ez egotea.

es avería

fr avarie

en damage

86

metatze (4)

Sin. pilatze (4)

Produktuak, paletetan banatu ondoren, bata bestearen gainean jartzea, lekua hobeto betetze aldera. Mantentze-orga baten laguntzaz egin ohi da.

es apilado

fr gerbage

en stacking

87

mezularitza (4)

Karga zatituko garraioa, pakete txikiekin eta, batez ere, dokumentuekin erabiltzen dena. Garraio-sistema arrunta baino azkarragoa eta garestiagoa da.

es mensajería

fr courrier; messagerie

en express

88

nazioarteko garraio (4)

Ibilbidea estatu bateko baino gehiagotako lurraldeetatik egiten duen garraioa.

es transporte internacional

fr transport international

en international transport

89

nazioarteko zirkulazio (4)

Atzerriko herrialdeetara ateratzen diren edo handik datozen ibilgailuen zirkulazioa.

es tráfico internacional

fr trafic international

en international traffic

ontziratze txartel

Ik. ibilgailuratzeko txartel

90

pakete (4)

Karga zatitua, mota bereko edo desberdineko gauzeekin bilkin antolatua eta ez oso handia osatuz prestatzen dena.

es paquete
fr paquet
en package; packet

pilatze

Ik. metatze

91

pisatze (4)

Garraiatu behar diren salgaien pisua neurtzea. Aski da kontratua egiten duen alderdietako batek bidalketaren pisua jakin nahi izatea, kargako edo deskargako lekuan salgaia pisatu behar izateko. Pisatzea kostatzen dena eskatzen duenaren kontura izaten da.

es pesaje
fr pesage
en weighing

92

proformako faktura (4)

Erosleari alde aurretik eskabide baten kostua jakinarazteko saltzaileak erabiltzen duen dokumentua, ordainketarik eskatzen ez duena.

es factura proforma; factura pro forma
fr facture pro forma
en pro forma invoice

93

salgai (4)

Salerosketako ondasun materiala, dagozkion prezioak eta zergak aplikatuz garraiatzen dena.

es mercancía
fr merchandise
en goods

94

salgai arriskutsu (4)

Osasunerako edo ingurumenerako propietate arriskutsuak dituen edo arazotsua den salgaia; garraiatzean edo eskuztatzean, hondakin, ke, gas, lurrun edo hauts arriskutsua sor dezake, leherkorra, sukioia, toxikoa, infekziosoa, erradiaktiboa, korrosiboa edo narritagarria izan daitekeena. Salgai arriskutsuen nazioarteko garraioa, besteak beste, honako hauek arautzen dute: ADR Akordioak, RID Erregelamenduak, ADN Akordioak, IMDG Kodeak, MARPOL Hitzarmenak eta IATAren DGR Erregelamenduak.

es mercancía peligrosa
fr marchandise dangereuse
en dangerous goods

95

salgai galkor (4)

Denbora luzez irauten ez duen salgaia, tenperatura-aldaketaren, hezetasunaren edo beste baldintza kaltegarriren baten ondorioz hondatzen dena. Salgai galkorrak izaten dira kontserbatzeko, biltegiatzeko, garraiatzeko eta kargatzeko baldintza bereziak, kontrol tekniko zehatza, osasungarritasun-baldintza jakinak eta tenperatura kontrolatua behar dituzten produktu sanitarioak, elikagaiak nahiz industriako produktuak. ATP Akordioaren bidez araututa dago salgai galkorren nazioarteko garraioa.

es mercancía perecedera
fr marchandise périssable
en perishable goods

96

Salgai Galkorren Nazioarteko Garraioari eta garraio horretan erabili beharreko Ibilgailu Bereziei buruzko Akordioa (4)

Sin. ATP (4)

Salgai galkorren nazioarteko garraioa eta garraio horretan erabili beharreko ibilgailu bereziak arautzen dituen akordioa, Nazio Batuen Erakundearen Europarako Ekonomia Batzordearen gomendioei jarraituz egina eta Genevan 1970ean izenpetua. Akordio honetan zehazten da, besteak beste, ibilgailuek zer ezaugarri bete behar dituzten salgai galkorrek tenperatura kontrolatuan edukitzeko eta zer prozedura erabili behar den horretarako.

- es** Acuerdo sobre transportes internacionales de mercancías perecederas y sobre vehículos especiales utilizados en esos transportes; ATP
- fr** Accord relatif aux transports internationaux de denrées périssables et aux engins spéciaux à utiliser pour ces transport; ATP
- en** Agreement on the International Carriage of Perishable Foodstuffs and on the Special Equipment to be used for such Carriage; ATP

97

salgaia ez onartze (4)

Garraiatutako salgaia jasotzaileak hartu nahi ez izatea edo garraiatzeko ekartzen zaion salgaia garraiolariak hartu nahi ez izatea. Lehen kasuan, gerta daiteke jasotzaileak uste izatea salgaia ez datorrela bat berak eskatutakoarekin, eta, bigarren kasuan, garraiolariak pentsa dezake ez direla garraio-baldintzak betetzen edo zalantzak izan ditzake salgaiaren egoerari buruz.

- es** rechazo de la mercancía
- fr** refus de la marchandise
- en** goods refusal

98

salgaia onartze (4)

Garraiatutako salgaia jasotzaileak hartzea edo garraiatzeko ekartzen zaion salgaia garraiolariak hartzea.

- es** aceptación de la mercancía
- fr** acceptation de la marchandise
- en** goods approval

99

salgaien garraio (4)

Salgaiak leku batetik bestera eramatea, soltean edo zama-unitateak antolatuta, hartarako egokitutako ibilgailuetan.

- es** transporte de mercancías; transporte de cosas
- fr** transport de marchandises
- en** carriage of goods; goods transport; freight transport

salmenta-arau

Ik. incoterm

100

solteko gaien edukiontzi (4)

Sin. solteko gaien kontainer (4)
Solteko salgai solidoak garraiatzeko edukiontzi berezia, barrutik altzairuzko estaldura duena.

- es** contenedor granelero;
contenedor de graneles sólidos
fr conteneur pour marchandises
solides en vrac; conteneur pour
vrac solide
en bulk container

solteko gaien kontainer

Ik. solteko gaien edukiontzi

101

taldekatze (4)

Bidaltzaile bat baino gehiagorengandik datozen eta jasotzaile bat baino gehiagorentzat diren karga-unitateak, fardelak edo bidalketak elkarrekin biltzeko eragiketa; loteak helmugen arabera antolatzeko egiten da, garraioa egin behar duen ibilgailuaren gaitasuna kontuan hartuz ibilgailua ahalik eta gehien aprobetxatzeko.

- es** grupaje; consolidación
fr groupage
en consolidation

102

tara (4)

Ibilgailu batek zerbitzu-langilerik, bidaiaririk eta zamarik gabe duen masa; ibilgailuaren tresneria finkoa, ura, erregai, lubrifikatzailea eta beharrezko dituen ordezko pieza, erreminta eta osagarri guztiak barnean hartuta kalkulatu da.

- es** tara; masa en vacío
fr tare; mass à vide
en tare; unladen mass

103

tenperatura kontrolatuko garraio (4)

Behar bezala kontserbatzeko tratamendu termiko espezifiko bat behar duten salgaien garraioa. Janarien kasuan tenperatura hotza behar izaten den arren, zenbaitetan beroa ere behar izaten da salgai batzuk garraiatzeko (hainbat olio, petrolio, asfaltoa eta abar).

- es** transporte bajo temperatura dirigida
fr transport sous température dirigée
en transport of goods at controlled temperature

104

terminal (4)

Bidaiariak edo salgaiak ateratzeko abiapuntu edo iristeko helmuga izaten den instalazioa, haiek ibilgailu batean sartzeko, ibilgailu batetik ateratzeko edo ibilgailuz aldatzeko erabiltzen dena; garraio-zirkulazio handiko lekuetan ezartzen da.

- es** terminal
fr terminal
en terminal

105

transpalet (4)

Bereziki paletak edo plataformak mugitzeko diseinatutako gailu mekanikoa; eskuz maneiatzekoa nahiz elektrikoa izan daiteke. Bi beso horizontaleko urkila bat eta gurpilak ditu; paletaren azpian sartu eta gora altxa edo behera jaitsi ondoren, nahi den lekura eramaten da.

- es** transpaleta
fr transpalette
en pallet jack

treneratzeko txartel

Ik. ibilgailuratzeko txartel

106

trunking (4)

Ibilgailuak elkarrekin eta zentral batekin konektatuta egoteko erabiltzen den komunikazio mugikorren sistema. Ibilbideak optimizatzeko eta ibilgailuei buruzko datuak denbora errealean ezagutzeko eta antolatzekeo tresna egokia da.

es trunking

fr ensemble de lignes; liaisons

en trunking

zama

Ik. karga

zama lotze

Ik. karga lotze

zama oso

Ik. karga oso

zama osoko garraio

Ik. karga osoko garraio

zama zatitu

Ik. karga zatitu

zama zatituko garraio

Ik. karga zatituko garraio

zama-unitate

Ik. karga-unitate

zamaketari

Ik. estibatzaile

zamatze

Ik. kargatze

zamatzekeo epe

Ik. kargatzeko epe

107

zisterna-edukiontzi (4)

Sin. zisterna-kontainer (4)

Likidoak garraiatzeko edukiontzi berezia, kanpotik egitura egoki bat eta barrutik altzairu herdoilgaitzezko andel bat dituena.

es contenedor cisterna

fr conteneur-citerne

en tank container

zisterna-kontainer

Ik. zisterna-edukiontzi

2. TRENBIDEKO GARRAIOA

108

abiadura handiko tren (4)

Sin. AHT (4)

Tren arrunt bat baino abiadura handiagoan ibiltzen den tren. Lehendik eginda dauden trenbide egokitueta orduko 200 km-tik gorako abiaduran ibil daitezke, eta bereziki horretarako diseinatutako trenbideetan orduko 250 km-tik gorakoan.

es tren de alta velocidad; TAV

fr train à grande vitesse; TGV

en high speed rail

AHT

Ik. abiadura handiko tren

109

bagoi (4)

Sin. kotxe (3)

Trenaren motorrik gabeko ibilgailua, bidaiariak, salgaiak eta bagajeak eramateko erabiltzen dena.

es vagón

fr wagon

en railway car

110

bagoi bete (4)

Salgai-garraioan, bagoi osoa hartzen duen karga-unitatea. Bagoi osoa hartzeko adinako pisuko edo bolumeneko karga garraiatu behar denean erabiltzen da, bagoi beteari aplikatzen zaion tarifa bereziaz baliatzeko.

es vagón completo

fr charge complète; wagon complet

en carload; complete wagon-load

111

espedizio-epe (4)

Salgai baten eskabide-dataren eta bidalketa-dataren arteko denbora.

es plazo de expedición

fr délai d'expédition

en intransit lead time

112

garraio-epe (4)

Salgaiak garraiatzeko behar den denbora, hau da, kontratu bat sinatzen denetik salgaia jasotzaileari entregatzen zaion arte doan denbora.

es plazo de transporte; plazo de entrega

fr délai de livraison

en delivery period; transit period

113

helmugako geltoki (4)

Bidaia baten amaieratzat aukeretzen den geltokia.

es estación de destino

fr gare de destination; gare

d'arrivée; gare destinataire

en destination station; end terminal

114

ibilbide-orri (4)

Ibilgailu komertzialetako gidariak hainbat herrialdetara sartzeko eta ateratzeko aurkeztu behar duten agiria; daramatzaten salgaien edo bidaiarien identitatea egiaztatzeko eta egindako ibilbideari buruzko xehetasunak emateko balio du.

es hoja de ruta

fr feuille de route

en route card

115

irteerako geltoki (4)

Bidaia baten hasieratzat aukeratzan den geltokia.

es estación de salida

fr gare de départ

en departure station; forwarding station; initial station

kotxe

Ik. bagoi

116

nazioarteko trenbide-iraganbideko txartel (4)

Sin. TIF txartel (4)

Trenbide-zirkulazioko nazioarteko dokumentua. Nazioarteko hitzarmen baten arabera, salgai bat zuzenean eta aduanako zigilua hautsi gabe irteerako aduana-bulego batetik beste herrialde bateko aduana-bulego batera eramateko ahalmena ematen du dokumentu horrek; tarteko mugak pasatzean ez da zigiluen kontrola beste izapiderik egin behar.

es carnet de tránsito internacional ferroviario; carnet TIF

fr carnet TIF

en TIF carnet

117

plataforma (4)

Lau oinen gainean jarritako ohol-tza batez osatutako elementua, gainean kargak jasotzeko edo eramateko balio duena.

es plataforma

fr plate-forme; plate-forme de manutention

en skid platform; platform

TIF txartel

Ik. nazioarteko trenbide-iraganbideko txartel

118

tren-autobide (4)

Kamioiak trenez eramatean datzan garraio-sistema. Zirkulazio zaileko lekuetan, adibidez leku menditsuetan, eta errepide-azpiegitura eskaseko lekuetan erabiltzen da, eta ohiko garraio-moduak baino garestiagoa, eraginkorragoa eta fidagarriagoa da.

es autopista ferroviaria

fr autoroute ferroviaire

en iron highway

119

trenbideko garraio (4)

Trenbidez egiten den garraioa.

es transporte por ferrocarril

fr transport ferroviaire

en transport by rail; railway transport

3. ERREPIDEKO GARRAIOA

120

administrazio-dokumentu

bakar (4)

Salgai-trukerako, hau da, salgaiak esportatzeko, inportatzeko eta lurraldetik igarotzeko behar diren aduana-eginbideetarako erabiltzen den administrazio-dokumentua; inportatzailearen edo esportatzailearen aitorten gisa aurkezten da aduanan aduana-eginbideak martxan jartzeko.

es documento único administrativo; DUA; documento administrativo único; DAU

fr document administratif unique; DAU

en single administrative document; SAD

ADR

Ik. Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioari buruzko Europako Akordioa

ADR baimen

Ik. salgai arriskutsuak garraiatzeko baimen

121

ardatzeko masa (4)

Zoru gainean grabitatzten duen masa, dagokion ardatzari lotuta dauden gurpil guztiek transmititutakoa.

es masa por eje

fr masse par essieu

en mass per axle

122

atoi (4)

Autopropultsatua ez den ibilgailua, ibilgailu motordun batek herrestan eramateko egina.

es remolque

fr remorque

en trailer

123

atoian eramateko gehieneko masa baimendu (4)

Ibilgailu motordun bati lotuta eramatekoa den atoi edo erdiatoi baten gehieneko masa baimendua; masa hura gainditzen duen atoaia edo erdiatoia ezin da ez matrikulatu ez zerbitzuan jarri.

es masa remolcable máxima autorizada

fr masse tractable maximale autorisée

en maximum authorized towable mass

124

atsedenaldi (4)

Gidariak nahi bezala erabiltzeko baliatzen duen denbora-bitarte jarraitua.

es tiempo de descanso; período de descanso

fr temps de repos

en rest period

125

autobus (4)

Sin. autokar (4)

Pertsonak eta haien bagajeak garraiatzeko bereziki prestatutako automobila, gidariarena barne bederatzi plaza baino gehiago dituen.

es autobús; autocar

fr autobus; autocar

en bus; coach

autokar

Ik. autobus

126

berogailu-ibilgailu (4)

Ibilgailu isoterma, beroa sortzeko gailua duena; gailu horren bidez, kutxaren barruko tenperatura igo, eta balio ia konstante batzuen artean irauarazten da, gutxienez +12 °C-an.

es vehículo calorífico
fr véhicule calorifique
en heated vehicle

127

bi ardatzeko ibilgailu (4)

Pisua lurrera transmititzeko bi biraketa-ardatzeko sistema duen ibilgailua.

es vehículo de dos ejes
fr véhicule à deux essieux
en two-axle vehicle

CMR

Ik. Salgaien Nazioarteko Errepide Garraioaren Kontratuari buruzko Hitzarmena

128

edukiontzi-garraigailu (4)

Sin. kontainer-garraigailu (4)
 Edukiontziak garraiatzeko ibilgailua, haiek behar bezala finkatzeko gailu bereziak dituena.

es portacontenedores
fr porte-conteneur
en container carrier

129

erdiatoi (4)

Autopropultsatua ez den ibilgailua, automobil bati akoplatzeko diseinatua eta prestatua: lotzen zaion ibilgailuaren gainean duenez bere ataletako bat, hari transmititzen dio bere masaren zati handi bat.

es semirremolque
fr semi-remorque
en semi-trailer

130

errepide-tren (4)

Atoi batek eta ibilgailu motordun batek elkarri lotuta osatzen duten automobila.

es tren de carretera
fr train routier
en road train; truck trailer

131

errepideko garraio (4)

Errepidez egiten den garraioa.

es transporte por carretera
fr transport routier
en road transport

132

errepideko geltoki (4)

Errepideko garraio publikoko ibilgailu handien geltokia. Bidaiariena edo salgaiena izan liteke.

es estación de transporte por carretera
fr gare routière
en road terminal; coach station

133

etxe-aldaketako garraio (4)

Etxebizitza, bulego edo negozio-lokal bateko altzariak eta hornidurak leku batetik bestera eramateko garraio espezializatua.

es mudanza
fr déménagement
en furniture removal

134

furgoi (4)

Salgaiak garraiatzeko automobila, karrozerian integratutako kabina duena; gutxienez, lau gurpil ditu, eta, gehienez, bederatzi plaza, gidariarena barne.

es furgón
fr fourgon
en van

135

furgoneta (4)

Gehieneko masa baimendua 3.500 kg-koa duen furgoia.

es furgoneta
fr fourgonnette
en minivan; small van

136

gehieneko masa baimendu (4)

Sin. GMB (4)

Ibilgailu batek, bide publikoetan zirkulatzeko, zama eta guzti izan dezakeen gehieneko masa.

es masa máxima autorizada; MMA
fr masse maximale autorisée; MMA
en maximum authorized mass; MAM

137

gidaldi (4)

Gidatzeak irauten duen denbora, kontrol-aparatu baten bidez automatikoki edo erdi-automatikoki erregistratua edo eskuz erregistratua.

es tiempo de conducción
fr temps de conduite
en driving times

138

helmugako herrialde (4)

Garraio-kontratu batean zehaztutako bidaiaren amaierako herrialdea.

es país de destino
fr pays de destination
en country of destination

hiri barruko garraio

Ik. hiri-garraio

139

hiri-garraio (4)

Sin. hiri barruko garraio (4)

Udalerrri baten barruko garraioa.

es transporte urbano
fr transport urbain
en urban transport

140

hiriarteko garraio (4)

Udalerrri artean egiten den garraioa.

es transporte interurbano
fr transport interurbain; transport interville
en intercity transport

141

hiru ardatzeko ibilgailu (4)

Direkzioko ardatz bat eta, atzean, beste ardatz bikoitz bat dituen ibilgailua.

es vehículo de tres ejes
fr véhicule à trois essieux; véhicule à six roues
en three-axle vehicle

142

hozkailu-ibilgailu (4)

Ibilgailu isotermoa, hotza sortzeko gailu banakoa edo partekatua duena; gailu hori, besteak beste, konpresio-ekipamendu mekanikoa edo absortzio-makina izan daiteke, eta, haren bidez, kutzaren barruko tenperatura jaitsi, eta balio jakin batzuen artean mantentzen da.

es vehículo frigorífico
fr véhicule frigorifique
en mechanically refrigerated vehicle

IB

Ik. ibilgailu berezi

143

ibilbide (4)

Garraioaren nondik norako bidea. Bidaltzailearen eta garraiolariaren artean ibilbide jakin bat hitzartu bada, bide horri jarraituz egin behar da garraioa, eta garraiolariak ezin du beste bide bat aukeratu, ezinbestean izan ezik; halakoetan, garraiolaria da horren ondorioz eragindako kalteen erantzulea.

es itinerario; ruta; recorrido
fr route; parcours; itinéraire
en route

144

ibilgailu arin (4)

Bereziki salgaiak garraiatzeko egokitutako ibilgailua, masa-ezaugarri berezikoa: gehieneko masa baimendua 6 tonatik beherakoa du, edo, 6 tonatik gorakoa izanda ere, 3,5 tonatik beherako karga erabilgarriko gaitasuna du.

es vehículo ligero

fr véhicule léger

en light vehicle

145

ibilgailu artikulatu (4)

Lotuta dauden erdiatoi batek eta ibilgailu motordun batek osatutako automobila.

es vehículo articulado

fr ensemble articulé; véhicule articulé

en articulated vehicle

146

ibilgailu astun (4)

Bereziki salgaiak garraiatzeko egokitutako ibilgailua, masa-ezaugarri berezikoa: gehieneko masa baimendua 6 tonatik gorakoa du, eta karga erabilgarriko gaitasuna 3,5 tonatik gorakoa. Trakzio-kamioiak ibilgailu astuntzat hartzen dira 3,5 tonatik gorako arraste-indarra dutenean.

es vehículo pesado

fr véhicule lourd

en heavy vehicle

147

ibilgailu berezi (4)

Sin. IB (4)

Ibilgailu autopropultsatua edo atoian eramatekoa, obrak edo zerbitzu jakin batzuk egiteko prestatutakoa. Ez ditu bete behar Ibilgailuen Erregelamendu Orokorrak ibilgailuentzat ezarritako hainbat baldintza tekniko edota masa eta neurrien inguruko mugak. Nekazaritzako makinak eta atoiak ibilgailu bereziak dira.

es vehículo especial; VE

fr véhicule spécial

en special vehicle

148

ibilgailu hozgarridun (4)

Ibilgailu isoterma, ekipamendu mekanikoa edo absortziozkoa ez den hotz-iturri baten bitartez (ur-izotza, plaka eutektikoak, gas likidotuak...) kutxaren barruko tenperatura jaitsi eta balio jakin batzuen artean mantentzen duena.

es vehículo refrigerante

fr véhicule réfrigérant

en refrigerated vehicle

149

ibilgailu isoterma (4)

Horma, zoru, sabai eta ate isolatzailez egindako kutxa duen ibilgailua; horma isolatzaileek kutxaren kanpoaldeko eta barrualdeko bero-trukea murrizten dute.

es vehículo isoterma

fr véhicule isotherme

en insulated vehicle

150

ibilgailu-garraia gailu (4)

Beste ibilgailu bat edo batzuk garraiatzeko bereziki egokitutako ibilgailua.

- es** portavehículos
fr porte-véhicules
en automobile transport vehicle

151

ibilgailua geldiarazte (4)

Garraiolariaren errurik gabe, ibilgailua aurrez ikusita baino denbora gehiagoz geldi edukiaraztea. Karga eta deskargako lanak egiteko edo beste arazoirekin bat sortu delako gertatzen da, eta galdutako denbora ordainarazteko eskubidea ematen du.

- es** paralización del vehículo
fr immobilisation du véhicule
en detention of vehicle

152

kabotaje (4)

Estatu bateko portuen, aireportuen, tren-geltokien edo antzeko lekuen artean beste estatu batean erregistratutako garraiolari edo ibilgailu batek egiten duen garraioa.

- es** cabotaje
fr cabotage
en cabotage

153

kamioi (4)

Lau gurpil edo gehiagoko ibilgailua, salgaiak garraiatzeko egina. Kabina ez dago gainerako karrozerian integratuta, eta gehienez 9 plaza ditu, gidariarena barne.

- es** camión
fr camion
en truck; lorry

154

karga banaezin (4)

Sin. zama banaezin (4)
 Errepideko garraioan kosturik edo beharrezkoa ez den arriskurik eragin gabe bi zati edo gehiagotan banatu ezin den zama; haren dimentsioak edota masa direla-eta, ezin da garraiatu erregelamenduz ezarritakoa betetzen duen ibilgailu motordun, atoi, errepideko tren edo ibilgailu artikulatu batean. Banaezintzat hartzen da, halaber, ezaugarriok dituen zama: elementu batek baino gehiagok osatzen dute zama, izaera bera eta helburu bera dituzte elementu horiek, dimentsio berdinak edo desberdinak, eta multzoko elementurik handienaren dimentsioetako batek edo bik gainditu egiten ditu kasuan kasuko arauak ezarritako gehieneko dimentsioak.

- es** carga indivisible; carga inseparable
fr charge indivisible
en indivisible load

155

karga erabilgarri (4)

Sin. zama erabilgarri (4)
 Kargapeko masaren eta tararen arteko aldeari dagokion karga.

- es** carga útil
fr charge utile
en payload

156

karga osoko kamioi (4)

Sin. zama osoko kamioi (4)
 Kargarekin kamioi osoa hartzen delako garraio-prezio bereziko erregimenean sartzen den kamioia.

- es** camión completo
fr camion complet
en truckload

157

kargapeko masa (4)

Ibilgailuaren eta haren zamaren masa osoa, zerbitzu-langileena eta bidaiariena barne.

es masa en carga
fr masse en charge
en laden mass

158

kargatze-herrialde (4)

Sin. zamatze-herrialde (4)
 Garraio-kontratu batean zehaztutako bidaiaren irteerako herrialdea.

es país de carga
fr pays de chargement
en loading country

kontainer-ibilgailu

Ik. edukiontzi-ibilgailu

159

linea (4)

Garraio-zerbitzu baten ibilbidea; zerbitzu hori bera.

es línea
fr ligne
en line

160

palet (4)

Plataforma horizontala, gehienetan zurezko oholez osatua, urkilaz hornitutako tresna mekanikoak erabiliz salgaiak errazago mugitzeko balio duena. Manipulazio-lanetan duen zereginaz gainera, nazioartean onartzen eta erabiltzen den karga-unitatea ere bada, eta, ildo horretatik, paleten neurriak normalizatzeko eta homologatzeko saioak egin dira: neurririk erabilienak europaleta (0,80 x 1,20 m) eta isopaleta (1,00 x 1,20 m) dira.

es paleta; palet
fr palette
en pallet

161

paletizazio (4)

Fardel edo pakete bat edo gehiago palet baten gainean jartzea eta karga hori finkatzea.

es paletización
fr palettisation
en palletization

162

salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak gidatzeko baimen berezi (4)

Sin. ADR baimen (4)

Salgai arriskutsuak errepidez garraiatzen dituzten ibilgailuak gidatzeko behar den administrazio-baimen berezia. Baimena eskuratzeko, besteak beste, gutxienez B motako gidabaimen arrunta behar da, beharrezko gaitasun psikofisikoak izan, hasierako prestakuntza-ikastaroa egin, eta gaitasun-probak gainditu.

es autorización especial para conducir vehículos que transporten mercancías peligrosas; autorización ADR
fr autorisation spéciale pour conduire des véhicules transportant des marchandises dangereuses; autorisation ADR
en special authorization to drive vehicles carrying dangerous goods; ADR authorization

163

**Salgai Arriskutsuen
Nazioarteko Errepide
Garraioari buruzko Europako
Akordioa (4)**

Sin. ADR (4)

Salgai arriskutsuen errepide garraioa arautzeko Europako akordioa, Nazio Batuen Erakundearen Europarako Ekonomia Batzordearen gomendioei jarraituz egina eta Genevan 1957ean izenpetua. Akordio honetan, salgai arriskutsuen identifikazio, enbalaje, etiketatze eta garraio-gutunari buruzko arauak ematen dira, eta, era berean, garraiolariak ibilgailuaren prestatetari eta gidariari buruz dituen erantzukizunak zehazten dira.

- es** Acuerdo Europeo sobre Transporte Internacional de Mercancías Peligrosas por Carretera; ADR
- fr** Accord européen relatif au transport international des marchandises dangereuses par route; ADR
- en** European Agreement concerning the International Carriage of Dangerous Goods by Road; ADR

164

**Salgaien Nazioarteko
Errepide Garraioaren
Kontratuari buruzko
Hitzarmena (4)**

Sin. CMR (4)

Genevan 1956ko maiatzean sinatutako hitzarmena, salgaiak nazioartean garraiatzeko baldintzei buruz kontratu uniforme bat arautzea eta garraio-baldintzak normalizatzea helburu duena. Alderdien eskubideak eta betebeharrak zein diren zehazten du, eta betetzen ez direnean garraiolariaren erantzukizuna eta kalte-ordain zenbatekoa ezartzen ditu.

- es** Convenio relativo al contrato de transporte internacional de mercancías por carretera; CMR
- fr** Convention relative au contrat de transport international de marchandise par route; CMR
- en** Convention on the Contract for the International Carriage of Goods by Road; CMR

165

takografo (4)

Ibilgailu baten gidaldiak eta atsedenaldiak kontrolatzen dituen tresna. Egindako bidea, ibilgailuaren abiadura, gidatzen emandako denbora, bestela emandakoa eta atsedenerako geratzen dena jasotzen ditu.

- es** tacógrafo
- fr** tachygraphe
- en** tachograph

166

teknikoki onargarria den gehieneko masa (4)

Fabrikazio-ezaugarrien arabera ibilgailu batek izan dezakeen gehieneko masa, ibilgailuaren fabrikatzaileak zehaztua.

es masa máxima técnicamente admisible

fr masse maximale techniquement admissible

en technically permissible maximum mass

167

TIR txartel (4)

Errepide-zirkulazioko nazioarteko dokumentua. Nazioarteko hitzarmen baten arabera, salgai bat zuzenean eta aduanako zigilua hautsi gabe irteerako aduana-bulego batetik beste herrialde bateko aduana-bulego batera eramateko ahalmena ematen du; tarteko mugak pasatzean ez da zigiluen kontrola beste izapiderik egin behar.

es carnet TIR

fr carnet TIR

en TIR carnet

trakzio-buru

Ik. trakzio-kamioi

168

trakzio-kamioi (4)

Sin. trakzio-buru (4)

Batez ere erdiatoiak herrestan eramateko diseinatutako automobila.

es tractocamión; cabeza tractora

fr tracteur routier

en road tractor; fifth wheel tractor

zama banaezin

Ik. karga banaezin

zama erabilgarri

Ik. karga erabilgarri

zama osoko kamioi

Ik. karga osoko kamioi

zamatze-herrialde

Ik. kargatze-herrialde

169

zirkulazio-murrizketa (4)

Ibilgailu-mota jakin batzuen zirkulazioa mugatzeko edo ibilbide jakin batzuetatik aldentzeko neurrien multzoa. Bideko segurtasuna zaintzeko edo zirkulazioa arintzeko egin ohi da.

es restricción de circulación

fr restriction au transit

en transit restriction

170

zisterna-ibilgailu (4)

Likido edo gas likidotu ontziratugabeak garraiatzeko ibilgailua.

es vehículo cisterna

fr véhicule-citerne

en tank vehicle

4. AIREKO GARRAIOA

171

aireko garraio (4)

Hegazkinez egiten den garraioa.

es transporte aéreo

fr transport aérien

en air transport

172

aireko garraio-gutun (4)

Bidaltzailearen eta hegazkin-garraiolar**i** baten artean salgaiak garraiatzeko sinatzen den garraio-gutuna.

es carta de porte aéreo;
conocimiento aéreo

fr lettre de transport aérien;
connaissance aérien

en air bill; air waybill

173

aireko garraioko edukiontzi (4)

Aireko garraioko karga-unitatea, aire-nabigazioko arauak betetzeko egokitua eta barrutik metro kubiko bateko edo gehiagoko bolumena duena.

es contenedor aéreo

fr conteneur aérien

en air container

174

helmugako aireportu (4)

Salgaiak nora bidali nahi diren adierazten duen aireportua.

es aeropuerto de destino

fr aéroport de destination

en destination airport

175

iglu-edukiontzi (4)

Igluaren antzeko forma duen edukiontzi berezia.

es contenedor igloo

fr igloo

en igloo container

176

irteerako aireportu (4)

Salgaiak nondik aterako diren adierazten duen aireportua.

es aeropuerto de salida

fr aéroport de départ

en departure airport

177

karga-agente (4)

Sin. zama-agente (4)

Hegazkina nola kargatu behar den planifikatzen duen arduraduna; hegazkinaren bolumena eta zamaren pisu-banaketa hartzen ditu kontuan horretarako. Itsas agentearen antzera, honek ere linea, data, tarifa eta abarrei buruzko berri eman eta leku-erreserbak egiten ditu, hegazkin-konpainiarekin garraioari buruzko kontratuak eginez.

es agente de carga

fr agent au chargement

en load agent

zama-agente

Ik. karga-agente

5. ITSASOKO GARRAIOA

178

ad valorem pleit (4)

Bolumenaren edo pisuaren arabera ezarri ordez salgaiaren balioaren arabera ezarritako pleita.

es flete ad valorem

fr fret ad valorem

en ad valorem freight

179

armadore (4)

Sin. ontzi-jabe (3)

Itsasontzi baten jabea, ontzia bere izenean erregistratua duena. Berak ustia dezake itsasontzia, hainbat zerbitzutarako erabiliz, edota akuratu egin dezake, era bateko edo besteko kontratua eginez (aldi batekoa, bidaiakakoa, eta abar).

es armador

fr armateur

en shipowner

180

bidaiaren araberako pleitatze (4)

Bidaia jakin baterako pleitatzea. Pleitaria itsasontziaren karga-educieraz arduratzen da: edukiera osoa har dezake bere salgaiantzat, edo azpikotratatu egin ditzake edukiera-zatiak. Gainerako kudeaketa eta ardurak itsasontzi-jabearen esku geratzen dira.

es fletamento por viaje

fr affrètement au voyage

en voyage charter

181

bide laburreko itsas garraio (4)

Salgaiak itsasoz bide laburrean garraiatzea; adibidez, Europako portu batetik bestera, edota Europako portu batetik Europarekin muga egiten duen itsaso baten ertzean dagoen beste herrialde bateko portu batera.

es transporte marítimo de corta distancia

fr transport maritime à courte distance

en short sea shipping

182

denboraren araberako pleitatze (4)

Denbora-bitarte jakin baterako pleitatzea; bidaia bat baino gehiago egin daitezke denboraldi horretan. Pleitariaren kontrolpean geratzen da itsasontziaren merkataritza-kudeaketa, eta hark erabakitzen du jarraitu beharreko ibilbidea; itsasontzi-jabearen esku geratzen da, berriz, tripulazioaren kudeaketa eta ontziaren segurtasuna eta mantentzea.

es fletamento por tiempo

fr affrètement à temps

en time charter

183

edukiontziak garraiatzeko itsasontzi (4)

Sin. kontainerrak garraiatzeko itsasontzi (4); kontainer-ontzi (4)
Edukiontziak garraiatzeko erabiltzen den itsasontzia, edukiontziak lotzeko egokiak diren gailu bereziekin prestatua.

es buque portacontenedores
fr navire porte-conteneurs
en container ship; container vessel

184

edukiontziak garraiatzeko itsasontzi zelular (4)

Sin. kontainerrak garraiatzeko itsasontzi zelular (4); kontainer-ontzi zelular (4)

Bereziki edukiontziak garraiatzeko erabiltzen den itsasontzia. Gidari batzuk izaten ditu sotoetan, edukiontziak, kargatu ondoren, ez daitezen mugitu. Garabi bidez bertikalean mugituz kargatzen dira edukiontziak.

es buque celular; buque portacontenedores puro
fr navire porte-conteneurs cellulaire; navire cellulaire
en cellular container ship

185

eskala-portu (4)

Itsasontzi batek bere ibilbidean salgaiak hartzeko edo uzteko erabiltzen duen portua.

es puerto de escala
fr port d'escale
en port of call

186

gerta ahala gertako pleit (4)

Salgai arriskutsuen, animalia bizien, salgai galkorren, ontzi gaineko salgaien eta antzekoen kasuan aplikatzen den pleita. Beti aurrez ordaintzen da, salgaia helmugara iritsi edo ez iritsi.

es flete a todo evento
fr fret acquis à tout événement
en ship lost or not lost

hegazkinetik ateratzeko

Ik. ibilgailutik ateratzeko

187

helmugan ordaintzeko pleit (4)

Garraiatutako salgaiak helmugara iristen direnean jasotzaileak ordaintzen duen pleita.

es flete pagadero en destino
fr fret payable à l'arrivée
en collect freight; freight payable at destination

188

ibaiko garraio (4)

Lur barruko ubideak edo ibaiak erabiltzen dituen garraioa.

es transporte fluvial
fr transport fluvial
en river transport

189

ibilgailuak eramateko itsasontzi (4)

Bereziki ibilgailuak eta beste hainbat makina gurgildun eramateko egokitua dagoen kargaontzia.

es buque de transporte de vehículos
fr navire porte-véhicules
en vehicle carrier

190

ibilgailutik ateratze (4)

Sin. lehorreratze (4); trenetik ateratze (4); hegazkinetik ateratze (4)
Pertsonak edo salgaiak itsasontzi, tren, hegazkin edo bestelako ibilgailu batetik lurrera ateratzea.

OHARRA: Testuingurua orokorra edo zehaztugabea denean, *ibilgailutik ateratze* erabil daiteke. Ibilgailua ontzia denean, *lehorreratu* erabil daiteke; ibilgailua zer motatakoa den bestela zehaztua dagoenean, haren aipamena egiten duen terminoa erabil daiteke: *trenetik ateratze*, *hegazkinetik ateratze* eta abar.

es desembarque
fr débarquement
en unloading; disembarkation

191

irteeran ordaintzeko pleit (4)

Nahitaez itsasontzia atera aurretik ordaindu behar den pleita; inportazio-herrialdearen truke-arauetan edo itsasontzi-konpainiaren arauetan hala eskatzen delako ordaintzen da.

es flete pagadero en origen
fr fret payé d'avance; fret payé au départ
en freight prepaid

192

itsas agente (4)

Sin. ontzi-kontsignatario (4)
Armadoreak edo pleitariak portuan duen ordezkaria. Lekuan lekuko agintarien aurrean bete beharreko dokumentazioa kudeatzeaz arduratzen da, eta baita tripulazioa eta ontzia zaintzeaz edo hornidurak eskuratzeaz ere.

es agente marítimo; consignatario de buques
fr agent maritime
en shipping agent

193

itsas autobide (4)

Ingurumen-baldintza sentikorreko eremuetan errepideko zirkulazio sarria arintzeko itsas garraioko ibilbidea, behar adinako portu-zerbitzuak jarriz eratzen dena. Kamioi kargatuak edo atoiak itsasoz eramatean datza.

es autopista marítima
fr autoroute de la mer
en sea motorway

194

itsas garraio (4)

Itsasoz egiten den garraioa.

es transporte marítimo
fr transport maritime
en sea transport

195

itsas garraioko edukiontzi (4)

Sin. itsas garraioko kontainer (4)
Bereziki itsasontzietan erabiltzeko prestatutako edukiontzia. Kutxa paralelepipedikoa izan ohi da, 20, 30 edo 40 oin luzekoa. Aurretik edo atzetik ixten da, eta, normalean, paleten bidez kargatzen da.

es contenedor marítimo
fr conteneur maritime
en maritime container; sea freight container

itsas garraioko kontainer

Ik. itsas garraioko edukiontzi

itsas zabaleko itsasontzi

Ik. itsasontzi ama

196

itsasoko garraio-gutun (4)

Sin. ontziratze-agiri (4)

Bidaltzailearen eta itsas garraiolari baten artean salgaiak garraiatzeko sinatzen den garraio-gutuna.

es conocimiento de embarque
fr connaissance; connaissance maritime

en ocean bill of lading; maritime bill of lading

197

itsasontzi ama (4)

Sin. itsas zabaleko itsasontzi (4)

Edukiontzi-garraioko itsasontzi handia. Zingo txikiko portuetan sartu ezin denez, itsasontzi elikatzaileez baliatzen da karga portu handi batetik ingurutako portu txikietara banatzeko.

es buque oceánico; buque nodriza
fr navire-mère; bateau-mère; mothership

en mother vessel

198

itsasontzi elikatzaile (4)

Itsas zabaleko itsasontzi handietatik inguruko beste portu txikietara salgaiak eramateko erabiltzen den itsasontzia, haiek baino txikiagoa.

es buque feeder; buque alimentador
fr navire collecteur

en feeder ship

199

itsasontzi konbinatu (4)

Petrolio eta solteko beste hainbat produktu garraiatzeko balio duen itsasontzia.

es buque combinado

fr navire combiné

en combination bulk carrier; combination carrier

200

itzulerako pleit (4)

Helmugako portuan onartu ez delako itzuli behar den salgai batengatik ordaintzen den pleita.

es flete de vuelta

fr fret de retour

en back freight

201

karga hartze (4)

Sin. zama hartze (4); salgaiak onartze (4)

Jasotzaile batek eskatutako salgaiak eskabidean zehaztu bezala iritsi direla egiaztatzeko eta salgaiok hartzeko eragiketa.

es recepción de la carga

fr réception des marchandises

en receiving; goods receiving

202

kargaontzi (4)

Sin. zamaontzi (4)

Espezializatu gabeko itsasontzia, hau da, era askotako salgaiak eraman ditzakeena.

es buque de carga general; buque de carga

fr navire transporteur de marchandises générales

en general cargo ship

203

kargatze-portu (4)

Sin. zamatze-portu (4)

Amarratuta dagoen itsasontzira karga igotzeko eta estibatze portua.

es puerto de embarque

fr port de chargement; port d'embarquement; port d'expédition

en loading port; port of loading; port of shipment

kontainer-ontzi

Ik. edukiontziak garraiatzeko itsasontzi

kontainer-ontzi zelular

Ik. edukiontziak garraiatzeko itsasontzi zelular

kontainerrak garraiatzeko itsasontzi

Ik. edukiontziak garraiatzeko itsasontzi

kontainerrak garraiatzeko itsasontzi zelular

Ik. edukiontziak garraiatzeko itsasontzi zelular

lehorreratze

Ik. ibilgailutik ateratze

204

merkataritzako flota (4)

Sin. merkataritzako ontzidi (4)

Enpresa, erakunde, elkarte edo estatu batek dituen itsasontzien multzoa, salgaiak urez garraiatzeko erabiltzen dena.

es flota mercante

fr flotte marchande

en merchant marine

merkataritzako ontzidi

Ik. merkataritzako flota

ontzi-jabe

Ik. armadore

205

ontzi-konpainia (4)

Merkataritzako zenbait itsasontziren jabe den konpainia.

es naviera

fr compagnie de navigation

en shipping company

ontzi-kontsignatario

Ik. itsas agente

ontziratze-agiri

Ik. itsasoko garraio-gutun

206

petrolio-ontzi (4)

Petrolio-produktu likidoak garraiatzeko prestatutako itsasontzia.

es petrolero

fr pétrolier

en oil tanker

207

pleit (4)

Itsasontzi bat edo itsasontziaren parte bat aldi baterako akuratzegatik jartzen den prezioa.

es flete

fr fret

en freight

pleitamendu

Ik. pleitatze

208

pleitari (4)

Itsasontzi-jabe bati itsasontzi bat edo itsasontziaren parte bat akuran aldi baterako kontratatzen dion pertsona fisikoa edo juridikoa. Bidaltzaileen aurrean benetako garraiolari bihurtuko duten kontratuak egin behar dira pleitariaren eta itsasontzi-jabearen artean.

es fletador

fr affréteur

en chartering agent; charterer

209

pleitatze (4)

Sin. pleitamendu (4)

Pleitari batek itsasontzi-jabe bati itsasontzi bat edo itsasontziaren parte bat akuran aldi baterako kontratatzea; gehienetan, salgaiak garraiatzeko egiten da.

es fletamento

fr affrètement

en charter

210

portu-agente (4)

Ontzi-konpainiak portuan duen ordezkaria. Zerbitzuari buruzko eta beste zenbait gairi buruzko informazioa ematen du: ontzia portura noiz iritsiko den, pleitak edo garraio-prezioak nola dauden eta salgaiak kargatze-portuko zein lekutan entregatu behar diren.

es agente portuario
fr agent portuaire
en wharf officer

salgaiak onartze

Ik. karga hartze

211

solteko salgai (4)

Kantitate handitan eta garraio-ibilgailuan bere horretan (hau da, enbalaje edo bilgarririk gabe) kargatzen den salgaia. Likidoak, aleak, mineralak eta antzekoak izan ohi dira mota horretako salgaiak.

es mercancía a granel; granel
fr vrac; merchandise en vrac
en bulk cargo; bulk goods

212

tarte hutseko pleit (4)

Itsasontzi batean espazio jakin bat kontratatu eta gero espazio hura bete gabe uzteagatik ordaindu behar den kalte-ordaina. Kontratuko pleitaren % 50 izaten da.

es falso flete
fr fret sur le vide; faux fret
en dead freight

213

tramp itsasontzi (4)

Ibilbide finkorik ez duen kargaontzia. Beraz, merkatuko eskaintzen arabera pleitatzen eta linea erregularrik egin gabe ibiltzen da.

es buque tramp
fr tramp; navire de tramping
en tramp ship

trenetik ateratze

Ik. ibilgailutik ateratze

zama hartze

Ik. karga hartze

zamaontzi

Ik. kargaontzi

zamatze-portu

Ik. kargatze-portu

6. GARRAIO INTERMODALA

aldaketa

Ik. ibilgailu-aldaketa

berrogei oin balioko unitate

Ik. FEU

214

bi mailako

edukiontzi-bagoi (4)

Sin. bi mailako kontainer-bagoi (4)

Edukiontziak bi ilaratan, bata bestearen gainean pilatuta, eramateko egokia den tren-bagoia.

es vagón portacontenedores de doble estiba

fr wagon à double niveau

en double stack wagon

bi mailako kontainer-bagoi

Ik. bi mailako edukiontzi-bagoi

215

edukiontzi bidezko garraio (4)

Sin. kontainer bidezko garraio (4)

Karga edukiontzitan sartuta eramateko garraio-modua; salgaiak fardalez fardel eramaten ibili gabe, edukiontzi batean sartu eta edukiontzia osorik mugituz egiten da.

es transporte mediante contenedor

fr transport par conteneur

en container transport

216

errepide eta trenbideko garraio (4)

Errepidea eta trenbidea konbinatzen dituen garraio intermodala.

es transporte por carretera/ferrocarril

fr transport combiné rail-route

en road-rail transport; piggyback traffic

217

errepide gurpildun (4)

Kamioiak eta ibilgailu artikulatuak, karga eta guzti, bagoi berezietara igo eta trenez garraiatzeko sistema.

es carretera rodante

fr route roulante; autoroute roulante

en rolling road

218

errepide gurpilduneko bagoi (4)

Zorua luzera guztian beheratua duen tren-bagoia; kamioi osoak eramateko balio du, eta, trenean era bereko beste bagoi batzuekin lotuta, errepide gurpildun moduko bat osatzen du.

es vagón para carretera rodante

fr wagon roulier; wagon route-roulante

en rolling-road wagon

219

eskeleto-bagoi (4)

Gainean erdiatoiak eramateko ardatz zentral huts bat duen tren-bagoia.

es vagón esqueleto; vagón bastidor

fr wagon squelette

en spine wagon

220

ferroustage (4)

Errepideko ibilgailu bat treneko bagoi baten gainean eramaten duen errepide eta trenbideko sistema intermodala.

es ferroustage

fr ferroustage

en piggyback; rail-road transport; trailer on flat car

221

FEU (4)

Sin. berrogei oin balioko unitate (4)
Berrogei oineko edukiontzi normalizatu batean sartzen diren salgaien neurria. Edukiontzien bolumena neurtzeko unitate gisa erabiltzen da

es FEU; unidad equivalente a cuarenta pies

fr FEU; unité équivalent à quarante pieds

en FEU; forty food equivalent unit

222

garraio intermodal (4)

Garraio multimodalaren modalitate bat: unitate edo ibilgailu bakar bateko salgaiak bata bestearen jarraian garraio-modu bat edo gehiago erabiliz eramaten dira, modu-aldaketa horietan salgaia manipulatu gabe.

es transporte intermodal

fr transport intermodal

en intermodal transport

223

garraio intermodaleko

unitate (4)

Garraio intermodalerako egokitutako edukiontzia, kutxa mugikorra edo erdiatoia.

es unidad de transporte intermodal; UTI

fr unité de transport intermodal; UTI

en intermodal transport unit; ITU

224

garraio konbinatu (4)

Garraio multimodalaren modalitate bat: garraio-katearen bide-zatirik handiena trenez, nabigazio-bide batez edo itsasoz egiten da, errepideak ahalik eta gutxien erabiliz (hasierako eta bukaerako zatietan bakarrik ia).

es transporte combinado

fr transport combiné

en combined transport

225

garraio multimodal (4)

Bi garraio-modu edo gehiago erabiliz egiten den salgai-garraioa, bi lekuren artekoa eta garraio-kontratu bakarrekoa izaten dena.

es transporte multimodal

fr transport multimodal

en multimodal transport

226

garraio-arrapala (4)

Neurriz egokitzen den arrapala, lurreko ibilgailuak beren gurpilen bidez jaisteko edo bertara igotzeko erabiltzen dena.

es rampa de transporte

fr rampe mobile; rampe de roulage; passerelle

en ro-ro ramp; ro-ro span

227

geltoki intermodal (4)

Garraio-modu desberdinak elkarrekin konbinatzeko (hau da, batetik jaitsi eta beste batean sartzeko) egokitutako eraikinez eta instalazioez osatutako geltokia.

es estación intermodal

fr gare de transport intermodal; gare intermodale

en intermodal terminal

hegazkineratze

Ik. ibilgailuratze

228

helmugako terminal (4)

Garraio-ibilbidearen bukaeratzat ematen den garraio intermodaleko instalazioa.

- es** terminal de destino
- fr** terminal de destination
- en** destination terminal

hogei oin balioko unitate

Ik. TEU

hub portu

Ik. ontzi-aldaketako portu

229

ibilgailu-aldaketa (4)

Sin. aldaketa (4)

Bidaiariak edo salgaiak ibilgailu batetik beste batera pasaraztea.

OHARRA: Testuingurua orokorra edo zehaztugabea denean, *ibilgailu-aldaketa* erabil daiteke. Hala ere, aldaketa mota bereko ibilgailuen artekoa dela jakinez gero, haien aipamena egiten duen terminoa erabil daiteke: *ontzi-aldaketa*, *tren-aldaketa*, *hegazkin-aldaketa* eta abar.

- es** transbordo; conexión; correspondencia
- fr** correspondance; transbordement
- en** connection; transfer; transshipment

230

ibilgailuratze (4)

Sin. ontziratze (4); treneratze (4); hegazkineratze (4)

Pertsonak edo gauzak itsasontzi, tren edo hegazkin batean sartzea.

OHARRA: Testuingurua orokorra edo zehaztugabea denean, *ibilgailuratze* erabil daiteke; hala ere, ibilgailua zer motatakoa den zehaztua dagoenean, haren aipamena egiten duen terminoa erabil daiteke: *ontziratze*, *treneratze*, *hegazkineratze* eta abar.

- es** embarque
- fr** embarquement
- en** boarding; loading

231

jatorriko terminal (4)

Garraio-ibilbidearen hasieratzat ematen den garraio intermodaleko instalazioa.

- es** terminal de origen
- fr** terminal d'origine
- en** departure terminal

kontainer bidezko garraio

Ik. edukiontzi bidezko garraio

232

kutxa mugikor (4)

Lurreko ibilgailuen neurriak kontuan hartuz egokitutako garraio-unitatea, garraibide desberdinen arteko (normalean errepidekoaren eta trenbidekoaren arteko) aldaketa egiteko gailuekin prestatua. Ibilgailuen neurrien arabera egokituta egoteak bereizten du edukiontzitik.

- es** caja móvil
- fr** caisse mobile
- en** swap body

233

lehorreko portu (4)

Salgaien terminal intermodala, herrialde baten barruan itsasotik urruti kokatua baina itsas portu batekin zuzenean lotuta dagoena.

es puerto seco
fr port sec; port avance
en dry port

234

nodo nagusi (4)

Eremu geografiko jakin batean salgaiak jasotzeko, sailkatzeko eta berriz banatzeko zerbitzugune nagusia.

es nodo central; estación nodal
fr point nodal
en hub

235

ontzi-aldaketako portu (4)

Sin. hub portu (4)
Portu handia, edukiontziak bertan hartu eta, itsasontzi elikatzaileen bidez, inguruetako helmuga-portu txikiagoetara banatzen dituena.

es puerto hub; puerto de transbordo; atractor de servicios de largo recorrido
fr port d'éclatement; port-pivot
en hub port; pivot port

ontziratze

Ik. ibilgailuratze

236

orga garraiatzaile-jasotzaile (4)

Zama txikiak jasotzeko eta, oro har, haiek ibilbide laburretan garraiatzeko garabi txiki bat edo urkila-plataforma bat dituen ibilgailua.

es carretilla transportadora elevadora
fr chariot élévateur
en fork lift truck

237

plataforma baxuko bagoi (4)

Altuera txikiko karga-plataforma bat duen tren-bagoia, kamioi osoak edo erdiatoiak garraiatzeko erabilia. Garraio intermodalean erabiltzen da: kamioi osoak edo erdiatoiak, garabi baten bidez, plataformaren gainean jartzten dira.

es vagón de plataforma rebajada; vagón canguro
fr wagon surbaissé
en low floor wagon

238

portiko-garabi (4)

Bi hankaren gainean eutsitako zubi batez osatutako jasogailua; eremu mugatu baten barruan errailen gainean ibil daiteke, eta kargak bertikalean, horizontalean edo aldeetarantz mugi ditzake.

es grúa pórtico
fr portique roulant
en gantry crane

239

portiko-orga (4)

Edukiontziak mugitzeko eta metatzeko balio duen portiko mugikorra, gurpil pneumatikoen gainean ibiltzen dena.

es carretilla pórtico
fr chariot-cavalier
en straddle carrier

ro-ro sistema

Ik. transroulage

240

terminal multimodal (4)

Garraio multimodaleko unitateak garraio-modu batetik bestera aldatzeko erabiltzen den lekua.

es terminal multimodal; plataforma logística intermodal
fr terminal multimodal
en multimodal terminal

241

TEU (4)

Sin. hogei oin balioko unitate (4)
Hogei oineko edukiontzi normalizatu batean sartzen diren salgaien neurria. Edukiontzien bolumena neurtzeko unitate gisa erabiltzen da.

es TEU; unidad equivalente a veinte pies

fr TEU; équivalent vingt pieds

en TEU; twenty food equivalent

242

transbordadore (4)

Bi punturen artean ordutegi jakin baten barruan bidaiak egiten dituen itsasontzia, bidaiariak eta bestelako ibilgailuak garraia ditzakeena.

es transbordador; ferry-boat

fr navire transbordeur;
transbordeur; ferry-boat

en ferryboat

243

transroulage (4)

Sin. ro-ro sistema (4)

Lurreko eta itsasoko garraioa konbinatzen dituen sistema intermodala, transbordadore espezializatuak erabiltzen dituena. Lehorretik iritsitako kamioiak, atoiak, erdiatoiak edo tren-bagoiak garraiatzen dira itsasontziotan.

es transroulage; transporte de carga rodada; sistema de transporte Ro-Ro

fr transroulage

en roll-on roll-off system

treneratze

Ik. Ibilgailuratzte

7. LOGISTIKA

adua-na-zergarik gabeko eremu

Ik. zona franko

244

banaketa (4)

Distantzia laburreko garraioa, ia beti ibilgailu arinetan eta salgaiak garraiolariaren biltegitik jasotzailearen helbideraino eramateko egiten dena.

es reparto; distribución

fr répartition

en dispatching

245

banaketa-parke (4)

Plataforma logistikoa, salgaiak biltegitartzeko eta banatzeko behar diren zerbitzuz eta ekipamenduz hornitua, ia beti eskualde mailakoa. Ekoizpen-enpresa, banaketa-enpresa, garraio-operadore, biltegi-enpresa eta abarretako logistika-sailak ezartzen dira leku horietan.

es parque de distribución; área logística de almacenamiento y distribución

fr parc de distribution

en distripark

246

biltegitartzete (4)

Salgai edo salgai-sorta bat leku seguruan, baldintza egokietan eta ordena jakin batean jasotzea, berriro saltzeko edo beste leku batera eramateko garaia etorri arte gordeta gera dadin.

es almacenaje

fr entreposage; stockage

en storage; storing

247

eskabide-prestaera (4)

Bezere batek eskatutako produktuak aukeratu, bereizi, kontrolatu eta enbalatzea.

es preparación de pedidos

fr préparation de commandes

en order picking

248

garabi pilatzaile (4)

Korridore oso estuetan kargak oso azkar garraiatzeko eta altxatzeko gailu mekanikoa; gaur egun salgaiak manipulatzeko eta biltegitartzeko instalazioetan gehien erabiltzen denetako bat da.

es transelevador

fr transtockeur

en stacker crane

249

garraio-kate (4)

Karga jatorritik helmugaraino eramateko behar den garraiobide eta nodo guztien segida, tartean egin beharreko ibilgailu-aldaketa guztiak ere barne hartuta.

es cadena de transporte

fr chaîne de transport

en transport chain

250

garraio-zentro (4)

Errepide-garraioarentzako plataforma logistikoa. Errepideko zerbitzugune batek eman ditzakeenaz gainera, garraioaren sektoreko enpresa guztiei dagozkien zerbitzuak ematen ditu: gidarientzako eta ibilgailuentzako zerbitzuak, garraio-enpresentzako administrazio-bulegoak, kargak kontratatzeke bulegoak eta abar.

es centro de transporte
fr centre de transport
en freight terminal

251

hiriko banaketa-zentro (4)

Hirian bertan banatu behar diren salgai guztiak bildu eta antolatzeke lekua. Salgaiak banatzean sortzen den zirkulazioa ahalik eta gehien murriztea da helburua.

es centro de distribución urbana
fr centre de distribution urbaine
en city logistics; goods distribution centre

252

jarduera logistikoetako eremu (4)

Portu bati atxikitako plataforma logistikoa, ia beti itsasoz garraiatutako salgaiekin lotutako bigarren eta hirugarren maila logistikoko jarduerak egiteke balio duena. Bereziki esportazioko eta inportazioko lanetan espezializatutako plataformak izaten direnez, aduana-erregimen eta -zerbitzurik onenak izan behar dituzte, lehiakortasunari eutsi ahal izateko.

es zona de actividades logísticas
fr zone d'activités logistiques
en logistics activities zone

253

logistika (4)

Lehengaien eta produktuen joan-etorri eraginkorra lortzeke helburuz erabiltzen diren teknika eta metodoen multzoa: biltegiatzea, garraioa, stocken kontrola, eskabide-prestaketa, banaketa eta abar.

es logística
fr logistique
en logistics

254

logistikako operadore (4)

Beste enpresa baten logistika kudeatzeaz arduratzen den zerbitzu-enpresa.

es operador logístico
fr opérateur logistique
en logistics operator

255

plataforma logistiko (4)

Eremu mugatua, estatuko nahiz nazioarteko hainbat garraio-kudeatzailek garraio-, logistika- eta banaketa-jardueretarako erabilia. Eremuan eraikita dauden eraikinen, ekipamenduen eta instalazioen (biltegi, bulego edo aparkalekuen) jabe edo errentari izan daitezke garraio-kudeatzaile horiek. Plataforma batek lehia libreko erregimena izan behar du bertan aritzen diren enpresa guztientzat, eta goian aipatutako jardueren funtzionamendu egokirako behar diren ekipamendu kolektibo guztiak izan behar ditu, baita pertsonentzako eta erabiltzaileen ibilgailuentzako zerbitzu orokorrak ere. Erakunde publiko edo pribatu bakar bat izaten da kudeatzailea.

es plataforma logística; centro integrado de mercancías; estación de mercancías

fr plate-forme logistique

en freight village; logistic centre

256

unitizazio (4)

Salgaiak beste karga-unitate handiagoetan biltzea; garraio-beharretarako egiten da, salgaien berezko osotasuna gordez.

es unitización

fr unitisation

en unitization; unitisation

257

zona franko (4)

Sin. aduana-zergarik gabeko eremu (4) Estatuko lurraldearen zati mugatu berezia. Eremu horretan sartzen diren salgaiak estatuko aduana-eremutik kanpora geratzen dira inportazioko zerga eta eskubideei eta estatu barneko zerga edo merkataritza-politikei dagokienez. Ez dago denbora-mugarik salgaiak eremu horretan edukitzeko.

es zona franca

fr zone franche

en freeport

EUSKARAZKO AURKIBIDEA



A

abiadura handiko tren, 108
ad valorem pleit, 178
administrazio-dokumentu bakar, 120
ADR, 163
ADR baimen, 162
aduana, 1
aduana-agente, 2
aduana-izapide, 3
aduana-zergarik gabeko eremu, 257
aduana-zergen eskubide, 4
aduanako gordetegi, 5
AHT, 108
aireko garraio, 171
aireko garraio-gutun, 172
aireko garraioko edukiontzi, 173
aldaketa, 229
animalia bizien garraio, 6
ardatzeko masa, 121
armadore, 179
atoi, 122
atoian eramateko gehieneko masa
baimendu, 123
ATP, 96
atsedenaldi, 124
atzerapen, 7
autobus, 125
autokar, 125

B

bagoi, 109
bagoi bete, 110
balio aitortu, 8
balio asegurat, 9
balio-aitorpen, 10
banaketa, 244
banaketa-parke, 245
barne-garraio, 11

berogailu-edukiontzi, 12
berogailu-ibilgailu, 126
berogailu-kontainer, 12
berrogei oin balioko unitate, 221
bi ardatzeko ibilgailu, 127
bi mailako edukiontzi-bagoi, 214
bi mailako kontainer-bagoi, 214
bidaiaren araberako pleitatze, 180
bidaiari, 13
bidaiarien garraio, 14
bidalketa, 15
bidaltzaile, 16
bide laburreko itsas garraio, 181
bilgarri, 17
biltegitratze, 246
biltegitzain-banatzzaile, 18

C

CMR, 164

D

denboraren araberako pleitatze, 182
desestibatze, 19
deskargatze, 20
deskargatzeko epe, 21

E

edukiontzi, 22
edukiontzi bidezko garraio, 215
edukiontziak garraiatzeko
itsasontzi, 183

edukiontzia garraiatzeko itsasontzi zelular, 184
edukiontzi-ibilgailu, 128
enbalaje, 23
eramateko helbide, 24
erdiatoi, 129
errepide eta trenbideko garraio, 216
errepide gurgildun, 217
errepide gurgilduneko bagoi, 218
errepide-tren, 130
errepideko garraio, 131
errepideko geltoki, 132
eskabide-prestaera, 247
eskala-portu, 185
eskatu ahalako garraio, 25
eskeleto-bagoi, 219
espedizio-epe, 111
esportatzaile, 26
esportazio, 27
estatu barruko garraio, 11
estibatzaile, 28
estibatze, 29
etiketatze, 30
etxe-aldaketako garraio, 133

F

fardel, 31
ferroustage, 220
FEU, 221
flota, 32
furgoi, 134
furgoneta, 135

G

gaintasa, 33
galtze, 34

garabi pilotzaile, 248
garraio, 35
garraio berezi, 36
garraio erregular, 37
garraio intermodal, 222
garraio intermodaleko unitate, 223
garraio kolektibo, 38
garraio konbinatu, 224
garraio misto, 39
garraio multimodal, 225
garraio multimodaleko operadore, 40
garraio pribatu, 41
garraio publiko, 42
garraio-agentzia, 43
garraio-agiri, 44
garraio-arrapala, 226
garraio-aseguru, 45
garraio-baldintzak, 46
garraio-bitartekari, 47
garraio-epe, 112
garraio-gastuak, 48
garraio-gutun, 49
garraio-kate, 249
garraio-kontratu, 50
garraio-kostu, 51
garraio-kostu ordaindu, 52
garraio-kostu ordaindugabe, 53
garraio-kudeatzaile, 47
garraio-modu, 54
garraio-operadore, 55
garraio-txartel, 56
garraio-zentro, 250
garraio-bide, 57
garraiolari, 58
garraiolariaren erantzukizun, 59
gehienerako masa baimendu, 136
geltoki intermodal, 227
gerta ahala gertako pleit, 186
gidaldi, 137
gordetegi franko, 60

H

hegazkineratze, 230
hegazkineratze txartel, 65
hegazkinetik ateratze, 190
helmugako aireportu, 174
helmugako geltoki, 113
helmugako herrialde, 138
helmugako terminal, 228
helmugan ordaintzeko pleit, 187
hil-garraio, 61
hiri barruko garraio, 139
hiri-garraio, 139
hiriarteko garraio, 140
hiriko banaketa-zentro, 251
hiru ardatzeko ibilgailu, 141
hogei oin balioko unitate, 241
hozkailu-edukiontzi, 62
hozkailu-ibilgailu, 142
hozkailu-kontainer, 62
hub portu, 235
hurrenez hurreneko garraio, 63

I

IB, 147
ibaiko garraio, 188
ibilbide, 143
ibilbide-orri, 114
ibilgailu, 64
ibilgailu arin, 144
ibilgailu artikulatu, 145
ibilgailu astun, 146
ibilgailu berezi, 147
ibilgailu hozgarridun, 148
ibilgailu isotermo, 149
ibilgailu-aldaketa, 229
ibilgailu-garraiaigailu, 150
ibilgailua geldiarazte, 151
ibilgailuak eramateko itsasontzi, 189

ibilgailuratze, 230
ibilgailuratze txartel, 65
ibilgailutik ateratze, 190
iglu-edukiontzi, 175
igorle, 16
incoterm, 66
inportatzaile, 67
inportazio, 68
irteerako aireportu, 176
irteerako geltoki, 115
irteeran ordaintzeko pleit, 191
itsas agente, 192
itsas autobide, 193
itsas garraio, 194
itsas garraioko edukiontzi, 195
itsas garraioko kontainer, 195
itsas zabaleko itsasontzi, 197
itsasoko garraio-gutun, 196
itsasontzi ama, 197
itsasontzi elikatzaile, 198
itsasontzi konbinatu, 199
itzulerako karga, 69
itzulerako pleit, 200
itzulerako zama, 69

J

jarduera logistikoetako eremu, 252
jasotzaile, 70
jatorriko terminal, 231

K

kabotaje, 152
kamioi, 153
karga, 71
karga banaezin, 154
karga erabilgarri, 155

karga hartze, 201
karga lotze, 72
karga oso, 73
